

## BERRI OROKORRAK

2018ko urriaren 26an 7. zenbakia



### Euskaraz Bizi!!!!

#### Hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituzue?

**Euskaraldiaren** ariketa soziala aurki datorkigunez, Soziolinguistikako klusterretik, **hizkuntza ohiturak aldatu** zituzten bikotekide batzuen bizipenak partekatu nahi ditugu.

Datozen asteetan, aldaketa emateko **motibazioak**, **zailtasunak**, **estrategiak** eta **gakoak** aipatuko ditugu.

##### **1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.**

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

##### **1.1.- Euskaldun izan nahia**

Gehien aipatzen den zergatia ohitura aldatu nahia da. Arrazoi hori elkarizketetan modu ezberdinetan aipatua agertzen da: euskaldun izan nahia, euskaldun sentitzea, euskaraz ez jakitearen amorrua izatea...

##### **1.2.- Familien jasotakoari jarraipena ematea**

Etxean gurasoengandik kideetako batek edo biek euskara jaso arren, bikote-harremana erdaraz garatu dutenen kasuetan aldatzeko arrazoi nagusietako bat da.

##### **1.3.- Gurasoek eman ezin izan zieten seme-alabei eman nahia**

Euskararik ez zekitelako ez irakatsi arren, euskararenganako nahia, maitasuna transmititu zieten. Horrela labur genezake: gure gurasoek euskara eman nahi ziguten, baina ezin izan zuten; guk gure seme-alabei, bai.

#### 1.-Familien parte-hartzea

Ikastolak lan-talde ezberdinak abian jarriko ditu datorren hiletik aurrera, familien ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko ikastolaren antolaketan eta kudeaketan nahiz azpiegituretan hobekuntza eta berrikuntza aurrera pausoak ematen jarraitzeko.

Lan-taldeen helburu eta antolaketa:

- **Parte-hartzea:** Ikastolako komunitatearen parte-hartzea sustatzea du helburua. Hilean bilera bat ordu eta erdikoa.

- **Azpiegiturak:** Frontoiaren estaltzea izango da hasierako lantaldearen eginkizun nagusia. Hiru astero ordu eta erdiko bilera. Ezagutza tekniko edota mota honetako obren inguruan eskarmentua izatea lehenesten da.

- **Batzorde Pedagogikoa:** Ikastolako helburu eta norabide pedagogikoan familien ekarpena jasotzea du helburua. Ikaslearen irteera profila definitzen laguntzea. Urteko lan-taldea. Hilean bilera bat 1 ordu eta erdikoa.

Horietako lan-talde batean parte-hartzeko interesa izanez gero, izen-ematea Ikastolako idazkaritzan edota e-mailez [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) egin dezakezue. Zuen izen-abizenak, zuekin harremanetan jartzeko telefono edota e-maila zehaztuaz eta parte-hartu nahi duzuen lantaldea zehaztuz.

#### 2.-Zirimara: bilera-deialdia.

Zirimaran parte hartzen duten haur eta gazteen familiekin bilera egingo dugu azaroaren 8an, osteguna, **arratsaldeko 16:45ean ikastolako jangelan**. Bertan ekintzaren antolaketa orokorren inguruan hitz egingo dugu, familia-planen inguruko informazioa emango dugu eta gurasoen lehen iritziak jasoko ditugu.

### **3.-Udarregi Ikastolako garraio-begiraleen ordezkapenatarako lan-poltsa osatzeko deialdia**

**UDARREGI Ikastolak, autobus begiraleen ordezkapenatarako lan-poltsa osatu nahi du:**

**Ezinbesteko baldintza:** euskara jakitea.

**Lehentasuna izango dute:**

- Ikastolako guraso direnak.
- Usurbildarrak direnak.

**Lanaren ezaugarriak:**

- Ikastolako autobusa hartzen duten ikasleen zaintza-lana egin.
- Autobuseko lau bidaietan ikasleen zaintza.
- Lan-ordutegia:
  1. 8:20tik 9:00etara.
  2. 12:30etik 13:00etara.
  3. 13:50etik 14:30era.
  4. 16:30etik 17:00etara.

**Lan horretan interesaturik bazaude** edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero, ikastolara dei ezazu telefono honetara: 943-36 12 16 (Ikastolako idazkaritza)

### **4.-Errigora.**

"Nafarroako erriberako uzta euskarari puzka". ERRIGORA egitasmoren udazkeneko kanpaina abiatuko da urriaren 25ean! Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuak gure artean saltzearen truke, jasotakoaren %25 zonalde hartako euskalgintza laguntzera bideratuko duen ekimena da ERRIGORA.

Aurtengoan ere bi kutxa izango dira aukeran: ZURIA eta BELTZA. Bakoitza 50€ren truke. Beltza Errigoraren hastapenetakoaren harira, Zuria berrikuntzak biltzen dituena. 23 etxek eskainiko dizkigute haien produktuak. Dozenaka langile. Ehunka nekazari. Bada familia!

Saskiek **50 euroko** salneurria dute eta bertan datozen produktuak hauek dira:

- **Saski beltza:** oliba-olio birjina, ozpin ekologikoa, ardo ekologikoa, muxika almibarrean, orburu-bihotzak, potxak, mahats-zuku ekologikoa, pikillo-piper osoak, borraja ekologikoa, zainzuri zuriak, piper txorizero mamia, tomate frijitua eta arbendolak.
- **Saski zuria:** Txokolatezko gailetak, ardo eta kanela pastak, teilak, arroz, pasta ekologikoa, zainzuri zuriak, zainzuri-krema, orburuak, pikillo-piper osoa, pikillo saltsa, piperrada, ozpin ekologikoa, eta ardo ekologikoa.

Aurtengorako egin den bideoa <https://www.errigora.eus/errigora-5-urte-euskari-puzka> loturan ikus dezakezue.

Kanpainaren aurkezpena Iruñan egongo da urriaren 24an. Saskiak urriaren 25etik azaroaren 14ra egongo dira salgai. Kutxen banaketa azaroaren 29tik abenduaren 4a bitarte egingo da. Ordainketa kutxa jasotzean egin beharko da.

Jakina den moduan, Errigora ekimenak sustatutako kanpaina honetan bildutako dirua eskualde horretako euskalgintzara bideratuko da.

**Azaroaren 12a bitarte**, Euskal Herri osoan Nafarroako Erriberako nekazaritza-produktuekin osatutako **otarren eskaera** egin ahal izango da.

### **5.-Aixaren aldeko Zumbathona.**

Ikastolako ikaslea den Aixarentzat, txakur laguntzaile bat lortzeko Zumbathona antolatu da **larunbatean** arratsaldeko **17:00etatik 19:00etara Oiardo kiroldegian**.

3 sarrera mota egongo dira:

\*Haurrak: 5 €.

\*Helduak: 12 €

\*"Zona 0" sarrerak (diruz lagundu baina saiora joango ez direnentzat): 10€

Sarrerak kiroldegian eta Txirristra tabernan egongo dira salgai. Egunean bertan ere, kiroldegian eskuratzeko aukera egongo da.

# OHARRAK ETAPAKA



HE

## 1.-Ikasturte hasierako gela-bileren egutegia.

Honekin batera Haur Eskolako ikasturte hasierako gela-bileren egutegia helarazten dizuegu.

MAILA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
2-3 urte	Urriaren 30ean, asteartea	17:30	Seme/alabaren gelan
0-1 urte	Azaroaren 6an, asteartea	17:30	Seme/alabaren gelan
1-2 urte	Azaroaren 7an, asteazkena	17:00	Seme/alabaren gelan



## 1.-Zorriak HHn.

HHko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

**Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:**

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
  - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
  - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingariak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
  - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
  - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

**Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin** aurrekoan bezalaxe.

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.**



LH

## 1.- KiVa programaren aurkezpen-bilera

**Astelehenean, urriak 29, arratsaldeko 17:00etan** KiVa programaren aurkezpen-bilera egingo dugu jangelan.

Bilera, **LHko 1. mailako gurasoei** eta **LH guztiko zein DBHko familia berriei zuzenduta** dago; zuen seme-alabek lehen aldiz parte hartuko baitute proiektu horretan.

## 2.-LH5eko eta LH 6ko gurasoentzat oharra.

Ikasturte honetan zuen seme-alabek Hatz 10 programaren bitartez, mekanografia lantzeko 10 orduko ikastaro trinko bat egin dute Ikastolan. Beraienez eskuratutako lizentziak ikasturte amaiera arteko balioa duenez, oraindik ere lanketan jarraitzeko aukera dute.

Beraz, nahi duten ikasleek lanketa beraien kontura jarrai dezakete. Ikastolen Elkartek eta programa

honen sustatzaileek esandakoari jarraituz, **gure gomendioa astean zehar 30 minutuko bi saio egitea izango litzateke**. Modu honetan, Ikastolan hartutako oinarrizko ohiturak landu eta finkatzeko aukera izango lukete.

Kontuan izan, mekanografia, idazten ikasten dugunean bezala, behin eta berriro praktikatuz eta pazientziaz eskuratzen den prozesu bat dela. Beraz, inolaz ere ez dugu presioz jokatu behar gai honekin eta era berean, pantaila aurrean denbora luzez aritzea ekidin behar dugu.

Zalantzaren bat sortzen bazaizue, zuen tutorearekin harremanetan jarri.



### **1.- KiVa programaren aurkezpen-bilera**

**Astelehenean**, urriak 29, arratsaldeko **17:00etan** KiVa programaren aurkezpen-bilera egingo dugu jangelan.

Bilera, **LHko 1. mailako gurasoei** eta **LH guztiko zein DBHko familia berriei zuzenduta** dago; zuen seme-alabek lehen aldiz parte hartuko baitute proiektu horretan.